

## Hirien bilakaera, Covid19aren ondoren

### *Kanpoko ikuspegi bat Euskadiko merkataritzaren eta zerbitzuen erronkei buruz*

Berrikuntzari eta Ekintzailatzari buruzko VIII. Jardunaldia, AENKOMER Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresarien elkarteak antolatua

2020ko iraila

*Gure testuinguruan, hiri-eremua da merkataritzaren garapenaren erdigunea. **Horregatik da hain beharrezkoa estrategia argi bat izatea, bai hiri-mailan eta bai merkataritza-mailan.** Baina zer gertatzen da, orain bezala, mundu osoa kolpatzen duen pandemia baten aurrean? Zer ondorio ditu horrek gure enpresetan, saltokietan eta ostalaritzan? Eta zein ondorio, gure bizimoduan eta kontsumo-ohituratan? Zein erronka berri ditugu aurrean?*

### **Erronkak ezagutu eta datorrena planifikatu behar da**

Hiri-eredu ezberdinak eta errealitate desberdinak dituzten lau udaletako ordezkariak COVID19k merkataritzan eta ostalaritzan dituen ondorioak arintzeko estrategiak erakutsiko dizkigute. Beren inguruan gertatzen ari den eraldaketa-prozesua azalduko dute; eta beren ikuspegia emango dute hainbat gairen inguruan: sektorearen biziraupena eta garapena suspertzeko politikak; kontsumitzaileentzako ingurune erakargarri eta seguruak nola sortu; **eta hirietako bizitza egituratzeko merkataritzak eta zerbitzuek jokatu behar duten papera.**

Ondoren, hizlari guztiek mahai-inguru batean parte hartuko dute, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Saileko eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariekin batera. Bertan, **sektorea garatzeko zeharkako estrategiak** aztertuko dira, besteak beste, **merkataritza suspertzeko politikak eta sektorearen digitalizazioa.**

Amaitzeko, lan-mahai teknikoak egingo dira, gure burua berrasmatu behar badugu, horretarako gakoak zien diren identifikatzeko eta partekatzeko.

### **Antzeko arazoak ditugunez, funtsezkoak dira elkarlana eta lankidetzak.**

Funtsezkoa da esperientziak eta ezagutza partekatzea, ahaleginak optimizatzeko. Sinergiak sortu behar ditugu, lehiakorragoak izateko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

**AENKOMERetik lan jardunaldi hau proposatzen dizuegu, Eusko Jaurlaritzako, Arabako Foru Aldundiko eta etorkizuneko ikuspegia duten zenbait udaletako arduradunen eskutik. Jardunaldiak merkataritza arloko politikak ondo orientatzen lagunduko digu, ekonomiarako funtsezkoa den une honetan.**

#### **Diruz laguntzen du:**



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

#### **Laguntzaileak:**



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

**Hirien bilakaera, Covid19aren ondoren**  
***Kanpoko ikuspegi bat Euskadiko merkataritzaren eta zerbitzuen***  
***erronkei buruz***

Berrikuntzari eta Ekintzailetzari buruzko VIII. Jardunaldiaren egitaraua

Osteguna, 2020ko urriaren 8a, Ciudad de Vitoria hotelean (Gaztelako Atea, 8)

**Goiza**

08:50 **HARRERA**

09:00 **INAUGURAZIO EKITALDIA**

Jon Andoni Aspuru AENKOMER elkarteko presidentea eta Gasteizko Udalaren ordezkaria-

09:10 **HAINBAT HIRITAKO POSIZIONAMENDUA ETA ESTRATEGIA KOMERTZIALA: GASTEIZ, ZARAGOZA, GIJON ETA XXXXX**

- Maider Etxebarria García. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren zinegotzia. Gasteiz
- Carmen Herrarte Cajal, Ekonomia, Berrikuntza eta Enplegu saileko burua. Zaragoza.
- Carmen Moreno, Asturiasko Printzerriko Merkatarien Elkargoko gerentea.
- Berresteko zain

10:30 **KAFE-ETENA**

10:45 **MAHAI-INGURUA: “Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako sektorearen erronkak hirian”**

*Lehen aipatutako udalez gain, Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere parte hartuko dute.*

- Felipe García Miravalles Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneko zuzendaria
- Elena Moreno Zaldibar Eusko Jaurlaritzako Merkataritza zuzendaria

11:30 **MAHAI TEKNIKOAK**

*Parte-hartzaileak mahai sektorial eta tekniko espezifikoei banatuko dira. Institutuzioetako merkataritza arloko teknikariak eta erakundeetako zuzendariak/kudeatzaileak gonbidatuko dira*

13:15 **AMAIERA EKITALDIA**

**Cristina González** Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Foru Diputatuak hartuko du parte.

**Atsedena**

14:00 **ARABAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZU SEKTOREARI ESKER ONA EMATEKO HAINBAT SARI BANATZEA**

Arabako Merkataritzaren eta Zerbitzuen Sektorearen XVII. AENKOMER Sariak; Merkataritza eta Hiria dinamizatzeko II. Sariak; eta Udazkeneko Erakusleihen lehiaketako VII. Sariak.